

...eta

KittO!

821 zkia.
2012-X-11



Betetzea dagokigu



KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

- Auzo-herriko zerbitzuak: azterketak eta berrak
- Elkarretarako, garapenak, irakurketak...
- Zerbitzuaren erregulazioaren materialak

AHOLKULARITZA

- Finantza
- Legebaitza
- Kontabilitateak
- Asegurak



RPS 04/02

IRAZABAL

clínica dental

- **Irribarreetan adituak**
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

BEZ-ik igo gabe!!!



GIDA

PRESTATZEN

DIHARDUGU...

Agertuko zara, ezta?

DEITU...

943 20 67 76
943 20 09 18

ASTEAN ESANAK

“Ea ondo enfokutzen dugun. Uste dugu nonbaiten badagoela baten bat `obligazioa` duena nik betetzeko `eskubidea` dudan lanpostu hori sortzeko. Eta hori ez da zuzena. Enplegua enpresarietik sortzen dute”

(IGNACIO MARCO, EKONOMILARIA)

“Gehiengo isila hain otzana eta txintxo da, murrizketak ulertzea ere iristen dela. Horregatik, orain esan beharko genuke esateko daukaguna. Bestela, gehiengo isilarekin nahasten ahalko gaituzte: hor arriskua”

(SANTI LEONE, HISTORIALARIA)

“Estatuak gehiengoaren kontzientzia ona zaintzen du eta gutxiengoaren kontzientzia txarra xaxatzen. Demokraten kontzientzia ona da gaur Estatuaren bermea, lehen erlijioa izaten zen bezala”

(JOXE AZURMENDI, FILOSOFOA)

“Zenbat gezur etorkinei buruz! Albaniar-kosoboarrak, esaterako: ez da talde etniko bat, inork ez daki nolakoak diren, ez zein hizkuntzatan egiten duten. Poliziaren txostenetatik sortutako kategorioa da, gaizto prototipoa”

(RAFAEL CRESPO, ANTROPOLOGOA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

ITXUZKI.- Erratza. “Itxuzkixa, kiñarra abarrekin egindako erratza”.

ITZARI.- Ehiztaria. “Kazarixa esatia itzarixa, itzarixa edo eitzarixan orde, ointsukua izan bihar dau”.

IXAK ETA.- Esaldi kausala. Gaztelerazko ‘ya que’. “Ixak eta heldu garan, hasi gaittezen jaten”.

eskutitzak

GAZTE ZUKGUA, NORBANAKOTIK KOLEKTIBORA

Kaixo lagun!

Herriko gazte bat naiz. Eta fruta bat ere banaiz. Fruta gorria. Beste fruta batzuekin elkartzea gustoko duena. Eztabaidatzeko, hausnartzeko, gozatzeko, borrokatzeko, askatzeko elkartzen naiz beste fruta batzuekin. Eta beste gazte batzuekin ere bai. Azkenaldian sei bat lagunekin batu naiz Independentzia eta sozialismoaren bide honetan sortu nahi dugun gazte antolakundearen sorreraz hitz egiteko. Hala ere, beste fruta batzuekin konpartitu nahi ditugu ideia guzti hauek. Zapore gozoa dut. Baina, garratza eta mingotsa ere izan nahi dut. Udaberri partean ateratzen naiz, baina neguan eta udan jaten diren frutak ere ezagutu nahi ditut. Natarekin jaten naute batzuek, azukrearekin besteek, batidoratik pasatuta ikaragarri gustatzen zaie batzuei, eta askori txokolate beroan bustita jatea. Baina niri gehien, beste fruta batzuekin nahastea gustatzen

zait. Mazedonia egiteko. Horrela, nire gozotasuna dastatu dezakete beste frutek, eta nik beste fruten koloreak ikusteko aukera izaten dut. Horregatik maitea, ezinbestekoak gara gazte antolakundearen sorreraz hitz egiteko fruta eta gazte oro. Zuk gua egiten duzulako eta guk zua. Norbanako bakoitzak kolektiboa osatzen duelako eta kolektiboak norbanakoa egiten duelako. Era horretan ikuspuntu, iritzi, kezka, behar, gogo eta borroka ezberdinei erantzungo diegu, Gazte antolakunde berriaren oinarriak finkatzen parte hartu nahi baldin baduzu zotoz barixaku honetan, urriaren 12an, denon artean egingo ditugun eztabaidetara. Arratsaldeko 18.00etan ekingo diegu eta gero zertxobait jateko aukera izango dugu. Dagoeneko ze fruta naizen asmatuko zuen baten batek. Zenbat eta gazte, kolore, fruta, iritzi, zapore eta forma gehiago hobe.

EIBARKO TALDE MOTORRA

Erredakzioaren oharra:

Datorren barixakuan, hilaren 19an, astekaria normaltasunez jasoko baduzue ere, hurrengo aste bietako kaleratze egunetan -jaiak tarteko- hainbat aldaketa egitera behartuta gaude. Horrela, hurrengo astean ez da astekaririk izango (25a, eguena, jai delako); eta hurrengokoan, eguaztenean, hilaren 31n, kaleratuko dugu (Domusantu egunaren bezperan).

Edozein informazio edo zorian agur gurean kaleratu nahi baduzue, izan ezazue kontuan.



ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskerazko Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkarteen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnak:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi.

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhua Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETTA)

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria

autuan

JARDUEREN ZERGA


Aurtengo Jarduera Ekonomikuen zerga borondatez pagatzeko epia azaruaren 12xan amaittuko da. Helbideratuta dagozen errezibuak egun horretan kobrauko dittue emondako kontuan eta helbideratuta ez dagozenak, barriz, edozein bulegotan pagau leikez edo, nahixago dabenak, internet bidez be horretarako aukeria izango dau.

DYA-REN IKASTARUAK

Oiñarrizko Bihotz-biriken suspertzia eta DEA erabilleraren gaiñeko ikastarua emongo dauurrixaren 29tik 30era, 18.30etatik 21.00etara. Ikastarua DYako Eibarko egoitzan (Pagaegi, 5) izango da. Informaziño gehixagorako edo izena emoteko 943464622 telefono zenbakira deittu leike.

ONARTUTAKUAK

Udalerako Pertsonal eta Antolaketa Zuzendari lanpostu bat betetzeko aukeraketa-prozesua amaittu danez, onartuen eta baztertuen behin-behiñeko zerrendia GAOn argitaratu dabe. Zerrendia www.eibar.net helbidian konsultau leike eta erreklamaziñuak aurkezteko epia urrixaren 22xan (hau barne) amaittuko da.



Inauguraziño ekitaldixan izan zan Iñaki Goirizelaia EHUko errektoria.

Energia Fotovoltaiko laboratorixo barrixa

Astelehenian inaugurau eben Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Eskolakua (IITUE) Eguzki-energia Fotovoltaiko laboratorixua. Ekitaldixan, bestiak beste, Miguel de los Toyos alkatiak, Iñaki Goirizelaia EHUko errektoria, Cristina Uriarte EHUko Gipuzkoako campuseko errektore-ordiak eta Angel Franco IITUEko zuzenda-

rixak hartu eben parte. Aurkezpen ekitaldi txiki baten ostian, danak alkarrekin instalaziñuak bisitatzeko aukeria euki eben. Laboratorixuak 56.000 euro kostau dittu eta ezinhobeto etorriko jakue energia barriztagarrixen gaiñeko ikasketak egitten di-ttueneri, bertan praktikak egitteko aukeria eukiko dabelako.

Datorren astian emongo dabe Gure Balioak sarixa

Gure Balioak Sarixaren epaimahaixak datorren astian, urrixaren 18xan, emongo dau ezagutzera aurtengo ediziñoako irabazliaren izena. Sari banaketa ekitaldixa Elgoibarren egingo dabe, Inazio Bereziartua Musika Eskolan, 19.00etan hasitta. Ekitaldixa irekixa da eta nahi daben herrittar guztiak izango dabe sartzeko aukeria. Edozelan be, juateko aukerarik ez dakenak ekitaldixa zuzenian streaming bidez segitzeko aukeria eukiko dabe (<http://www.livestream.com/gurebalioak>). Herrittarrak proposautako 21 hautagaitza jaso dittue, enpresa, kultura, kirola edota arlo soziala ordezkaten dabenen izenekin, eta horren artian egin dau aukeria epaimahaixak.





Funeuskadi Eibar

SERVICIOS FUNERARIOS



Bellatokia Funeuskadi Eibar:
Otopia, 27

Bulegoa:
Edebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

©943 82 15 39 - www.funeuskadi.com



Funeuskadi
El primer servicio funerario de Euzkadi

- Eibar • Donostia • Bilbo • Barakaldo • Leioa • Getxo • Sestao • Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sopu • Espinosa de los Monteros •



MUGICA

ITURGINTZA



AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...

HANS GROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Teknikerreko biharren harira

Eibarko Bilduk erredakziñora bialdutako argazkixarekin Teknikerren biharra sortu daben zikinkerixiaren gaiñeko salaketia egin nahi izan dabe: "Barrikuntzaren aintziñian eta Eibarko marka-irudixa bihurtu nahi daben Teknikerrek holan laga dau bere atzealdia. De-babarrenian mailla gorenian daguan zentro teknologiko-entresarialak, mailla haundiko ikerketa eta ezagutzaren garapenian biharrian diharduanak, naziñoarteko bokazi-



ñua dakanak eta oin momentuan Miramon Parke Teknologikuan integratzia ospatzen diharduanak, hobeto zaindu biharko leuke bere atzealdia. Teknikerrek eta Sprilurrek osatzen daben Polo Teknologiko barrixa eta ingurua

egokitzeko obrak amaittu aurretik instalaziñuen erabilleria baimendu dau Udalbatzak. Gauzak holan, honen gaiñeko arduria hartzia eta Arrate ballariak dakan itxura tamalgarrixari urtenbidia emotia eskatzen detsagu".

Armerixa Eskolari sarixa



Novoa, De los Toyos eta Ulazia. LEIRE ITURBE

Ehun urtian egindako biharri erre-konozimendu modura, Eusko Jaurlaritzak Lan Onari bereizgarrixa emongo detsa Armerixa Eskolari. Erabagix urrixaren 2xan hartu eben Gobernu Kontseilluan eta sarixa emoteko ekitaldixa urrixaren 25ian, Euskadiren Egunian ospatuko dabe Lehendakaritzan: Jose Luis Novoa eskolako zuzendarixak Patxi López jarduneko lehendakarixaren eskutik jasoko dau sarixa.



55 urte dakenen bazkarixa

1957ian jaixotakuak bazkarixa egifi eben zapatuan. Untzagan alkartu eta hamaiketakua hartu eta gero, Ixuara igo ziran, bertan bazkaldu eta jarraixan, bazkalostia jai giro paregabian dantzatzen pasatzeko.



Simulakro urbanistikuak

Atxakixarik ez da falta izaten diru publikua porlanian gastatzeko, eta oiñ modan daguana kalietan oiñezkuendako guniak sortzia da. Aspaldittik daroiat hori defenditzen, eta ez naiz ba horren kontra hasiko oin, baiña poltsikuari be begiratu bihar jako... krisixan atxakixarekin bada be! Estaziño kalia barrizteko, 211.000 euro. Ego-Gaiñ-en kasuan, 280.000 euro. San Agustin kalia, 255.000 euro. Laugarren kale bat egindakuan milloi bat euro izango da danera. Eta damutu ezkeru, ze? 1996xan Getxon peatonalizaziñua probau zeben obrarik egin barik. Pintura pixkat nahikua izan leike proba bat egitteko. Ered hori Massachusettseko teknologixa institutuak bere ikaslieri erakusten detsa, eta eredu horri jarraitu zetsan New Yorkeko udalak Times Square berriztu aurretik probia egitteko. Guk, badaezpada be, dirua aurretik. Eibartarrak harruak ez garanik ezingo dabe esan behintzat.

+ OSASUN GAZDA

Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

miren albistegi sojo
HELVIDE ETA TELEFONO BERRIAK
Errebal, 14
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57

AMAÑA
HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mituz, konpakto eta koloretan handiak...
Hundubako zentroa...

943 20 78 51

R.P.S. 148/12

m bista eder

Irribarreak gazte-egiten gaitu

Implante eta Horta-Estetikak onak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75

Monica Martín Fonseca
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika

Tel. / Faxa: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika
Jesus M^a Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia
Implanteak / Laser Teknologia / PADI

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

hartz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkiizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

RPS 336/05

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
horts-klinika

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Implanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. I. Berrón Pared. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapia



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAGUETA, 20
Tlf: **943 53 06 42**
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA



FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zbkia.
OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M. lokala
Tel. 622 14 58 58

Okulistak



Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuareta
943 20 19 82



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEIDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak



AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
Tel. **675 706 807**

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoa
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (IBAR)
Tel. 943 20 27 15

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

Radiologia

MADINA
RADIOLOGIA

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

Hemen zure tokia izan nahi baduzu:
deitu 943-206776 telefono zenbakira

asteko
1.286
datua

lagunek hartuko leukie etxia alokairuan Eibarren, Etxebideren arabera. Hórretatik 699 gure herriko erroldan izen-emonda dagoz. Bizigunek 44 etxe alokairuan eskintzia lortu dau gurian, 5.000 EAEn.

Zero Pobrezia

Urrixaren 17xan Pobreziaren Kontrako Naziñoarteko Eguna gogoratuko da eta, horren harira, 12.00xetan Untzagan Eibarko El-karkidetzarako Mahaiak antolatutako ekitaldi nagusixa egingo dabe. Eta eguenian, barriz, 19.00etan zine foruma eskinduko dabe Portalean. "Interferencias" (Zuz: Pablo A. Zareceansky) pelikulia emongo dabe, mundu maillako krisi ekonomikuaren gaiñian diharduan lana, sektore sozialetako eta zine munduko 150 bat profesio-



Pobreziaren Kontrako Naziñoarteko Eguna gogoratuko da 17xan.

nalen alkarlanaren emaitza. Bertan krisixaren arrazoiak azaldu eta horri aurre egitteko alternatibak esplikatzen dittue.

Maritxu Aranberri "Guk, nosotros" dokumentalían

Martitzenian presentau eben "Guk, nosotros", Argentinako euskaldunen inguruan diharduan ordubeteko pelikulia.

Nuria Vilaltak zuzendu dau Road Movie itxurako dokumentala eta bertan Rio de la Platako alde bixetan (Argentinan eta Uruguain) bizi diran euskaldunen berbak, kezkak eta ametsak jasoz dittu. Agertzen diranen artian aurten, Arrate egunian, 99 urterekin hil zan Maritxu Aranberri eibartarra dago. Oin dala 65 urte ihes egiñ eban eibartarrak Ar-

gentinatik kontatzen ditu bere bizitzako gora-beherak, eibarreraz (34. eta 47. miñutueta agertzen da).



Maritxu Aranberri bere lobetako hamabikin.

Hitzordu bikoitza Arbasoen Deia-n

Umirako hitzordu bikoitza preparau dabe Arbasoen Deia programaren barruan, zubixa aprobetxauta. Lehelengua bixar bertan izango da eta Dolmenen Ibilbidia egitteko aukeria eskinduko dau. Bisitarixak artzaiñ aztarnak ezagutuko dittu, Karakate-Irukutzeta mendileruan. Trikuharri eta tumulu multzo interesantia ikustiaz gaiñera, bertako produktuak dastatzeko aukeria be eskinduko jakue parte-hartzaillieri. Eta bigarren hitzordua domekan izango da. Mendaroko tren geltokitik abiatuta, Kilimoi baillarara abiatuko dira bisitarixak. Bertan ibilbide labur eta erraza egingo dabe burdiñoia, karobi eta bide zaharren aztarnak jarraituta.

EGOITZA NAGUSIA
Abuzarrieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba
Tanatorio eta Errusketako laboa
Eguzkaren (luzerik pargoraz)
Aurkizko, maitu eta oiguri erretze zerbizak
Korok - Ekela - Urtumako ibeldi
Eskal Herri eskola ospitalean bertan da luge
Nazio eta Nazi koroketo iratziak

Mugica Ehorzketa
Ehorzketa mugica

TELEFONOA (34 938) 943 201 951

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

nafarroaonez
ZIZURTXIKIA
urriaren 21ean

Irteera:
08.30etan
Ego-Gainetik



Buelta:
19.00etan

kolore&hitz
nafarroaonez12
afikastola zizurtxikia

11
euro

1.775.291 dira boto eskubidia dakenak Eusko Legebiltzarrerako 75 aulkixak barritu bihar diran honetan: 25 probintzia bakotxeko. Aulkixa eskuratzeko gitxieneko ehunekua 3kua da. Halakuetan kontuan izan bihar dira, gaiñera, abstenziñuak, balixorik gabekuak eta beste: gehixenetan ezer gitxirako balixo dabenak. Badira halako botuak be ordezkaturata egon biharko leukiela esaten dabenak...



Botuak... eta bestelako "botuak"

Demokraziak eskatzen dau, taldekide guztie-ri aitortutako botua jaso eta zenbatuz gero, gehien-guaren nahixa egittia. Holakuetan, botu argixa (baiez-kua/ezezkuak) emotiaz aparte, gure eritzixa bestelako modura be adierazi geinke: **botua emon barik**, abstenituz, interesik ez dogulako, ez dogulako erabagi prozesua onartzen edo gairaditu eziñeko dudamudak dittugulako; **zuriz**, inte-

resa izanda eta erabagi prozesua onartuta be, eritzi argirik ez dogunian; edo **balixorik bako botuaren** bittartez, normalian nahitta eginda, protesta modura aittatu gura dogulako geure eritzixa.

Lantzian behingo erreferendumatik aparte, herritar xumeori dagokigun demokrazia bakarria demokrazia ordezkatzailia edo hautes-botua da: aginte-aldi batez, gai publikuen arduria izango da-

ben pertsonak botuaren bittartez hautatzia. Beti be, alderdixak eskintzen dittuen hautes-zerrenden artian hautatuz, ez jako-eta hiritarrari berak nahiko leukezen hautagaixak zuzenian proposatzen eta, holan nahi izan ez-kero, hautatzen.

Boto "berezixak" dirala-eta, demokrazia ordezkatzailiaren kasuan, emondako botua bakarrik hartzen da kontuan, eserlekuak asignatzerako or-

duan. Emon bakua -abstenziñua-, zuriz emondakua edo, arrazoi askorengaittik, balixorik bakua jotzen dana, horrek guztiorrek ez dake ordezkartzan ondorixo zuzenik. Dana dala, ez da gauza bera norberak bere botua nahitta balio-gabetzia edo baliozko botua izan nahi dabena aginte politikuak balio-gabetzia: azken hauetan legitimaziño kontua izaten da jokuan eta horrek be badaka bere garrantzixa.

APARTA, BERRIA, PRAKTIKOA eta GAURKOA



EMAN CONSULTING, S.L.

● **AHOLKULARITZA ETA CONSULTING**

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa

● **GIZA ERREKURTSOAK**

- Enpresako komenio eta hitzarmenak

● **PERTSONALAREN AUKERAKETA**

● **STAFF OROKORRA**

- **KRISIALDIAN DAUDEN ENPRESAK BERRIRO MARTXAN JARRI**

● **AUDITORIAK**

- **KOMENIO ESTRAJUDIZIALAK**

● **ORDAIN-ETENALDIAK**

- **ASEGURU PRIBATUAK**

● **KALITATE ARAUAK**

J. Etxeberria, 5 (Tel. 943 200 336 / 943 200 069) - Faxes: 943 200 342 **EIBAR**

Marqués de Valdespina, 10 (Tel. 943 170 054) - Faxes: 943 176 901 **ERMUA**

emanjur@emansl.es

MAILAK TRUST. S.L.



TRANSAKZIO
INMOBILIARIOAK
KOMUNITATEEN
GESTIOA

- **ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA**
- **ALOKAIRUAK**
- **TRASPASOAK**
- **BALORAZIOAK**
- **PERITAJEAK**
- **SUBENTZIOAK**
- **KREDITU OFIZIALAK**
- **BANKU KREDITUAK**

J. Etxeberria, 5 (EIBAR)

Tel. 943 200 336 / 943 208 778 Faxes: 943 200 342

Marqués de Valdespina, 10 (ERMUA)

Tel. 943 170 451 Faxes: 943 176 901

Botua emoteko orduaren aurrian


Hauteskunde mahaixa

Udal bakotzak aukeratzen dittu pleno baten, zozketa bittartez, mahai bakotzeko titullarrak eta ordezkua. Presidentiak eta bokal bixak 75 euroko dieta izango dabe eta mahaiko kidiak Seguridad Sozialaren babesa dake edozer gertatzen bada be.

Udalaren arduria da mahai-

ko kidieri abixua emotia. Mahaixan ez egoteko alegaziñuen artian, honakuak aurkeztu leitez: 65 urte eginda eukitzia; sei hillabetetik gorako haurdunaldixan egotia eta, behiñ ama izanda, geroko amatasun atsedendaldixan egotia; kartzelan edo ospital sikiatrikuan egotia; egun horretan operaziñua egin bihar badetse edo

horretarako proba garrantzitsuak; kasu berezi batzuetan, ume edo nagusi baten zainketa zuzena eta jarraitua egin bihar dabenian; famelixako ospakizuna dakanian batek,



2007xan heldu zan Miren Gallastegi Eusko Legebiltzarrerako, Coral Rodríguezen (hau be eibartarra) tokixa betetzera. Handik bi urtera, 2009ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundiaren, zerrendetan lortu zeban bere tokixa eta oiñ arte jarraitu dau. Gasteizen bere jarduna asko aberastu dalakuan dago.

“Lege municipala aurrera etara biharra dakagu”

– Alde haundixa dago zifegotzixa edo parlamentaria izatiaren artian?

Desbardiña da, batez be gertutasunari begira. Halanda be, gertutasun horren faltan, oso positibotzat jotzen dot egindako bidia. Nire kasuan, formaziño juridikua dakan batentzat interesgarria da oso. Nire lanian legiak aplikatzia tokatzen bajata, hamen horretarako bidia emoten daben legislatze kontuan jardun izan dot. Horko funtzionamenduan sakonduz, gauzak zelan kontrolatzen diran jabetzen zara.

– Zeiñ izan da zure lana Legebiltzarreko komisiñuetan?

Justizia esparruko bozeramaillia izan naiz batez be, eta baita Barne departamentukua. Partaidia izan naiz, beste batzuekin batera, Justizia administraziñuaren modernizaziñuan, eta bulego judicial barrixa sortze-lanian izan gara. Bozeramaillia lanak be egin dittut Lapurtutako Umien Komisiñuan eta, hor egindako lanaren ondoren, espero daigun barriro osatu eta oiñ arte egindako lanarekin jarraitzia.

– Zer geratu jatzue esku artian? Zeiñ eronkari heldu bihar jako epe motzian?

Lege municipala aurrera ez etaratzia izan lei-

ke larrixena. Jakinda, gaiñera, gure sare instituzionala municipalista dala batez be. Urtiak daroiaguz arazo horri erantzunik emon barik eta oinguan be Gobernuaren akziñuak ez dau izan bihar genduan laguntza parlamentaria eta quorum falta horrek eziñezkua bihurtu dau aurrera egittia.

– Zelan ikusten dozuz 21eko hauteskundiak?

Guretzat egoera barrixa izango da oingua, demokraziaren jaixa bihar dan moduan bizitzekua. Hori dira-eta hauteskundiak: demokraziaren gorrena. Eta botua, herritarrak dakan armia gauzak aldatzeko. Beste batzuetan ezin izan gara esplika bihar dan moduan, beti koakzionatuta ikusi dogu geure burua. Oinguan errazago izango dogu gure mensajia jendiari eruatia.

– Baikorra zara izan zeinkiezen emaitzekin?

Gauza guztietan naiz ni baikorra eta, horregaittik, oinguan be konfiantzia dakat herritarrak azken 3-4 urtietan egin doguna apreziatzen jakingo dabela. Gauzak asko aldatu dittugu, zelan ez onartu! Bakia irabazi dogu; oin konbientzia irabazia tokatzen jaku. Harro nago lortu dogunarekin: batzuk hainbeste mespretxatzen daben politikia lehengo lerrora eramatiarekin.

berori ezin bada atzeratu edo, atzeratzekotan, galera ekonomiko haundixak badakar. Eta baita egun horretan biharra egin bihar badabe mediku, sanitario, babes zibillian edo suhiltzaille moduan.

Goizeko 08.00etarako mahaixan ezin bada bat egon, lehenbailehen abixau biharra detsa Zonaldeko Hauteskunde Juntari. Bestela, ez badago ez juateko justifikatu leiken motiborik, delitotzat joko da eta hiru hillabetetik urtebetera arteko presoaldi zigorra izango dau edo sei hillabetetik 24ra arteko isuna.

Botaziño sobria mahaiko presidentiak sart biharra dau beti urman, ez botu-emotailiak. Botaziñua geldiarazteko hainbat gertaera izan leitez: kandidatura bateko papeletak falta dirala, bonba-abixua jaso eta hustutzeko agindua jaso dala, urna apurtu dala, botaziñorako sobriak falta dirala edo mahaiko bat baiño gehixago falta badira. Hori bai, erabagix mahaiko presidentiak hartuko dau. Noizbaitten botaziñua bertan behera gelditzen bada, handik bi egunera egingo da barriro prozesu guztia.



ORDUTEGIA
09.30-13.00
15.30-20.30

EIBAR

5 eguneko Teorikako IKASTARO TRINKOAK

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45

ZEZEN BIDE



AUTO ESKOLA



Behiñ 20.00ak diranian, korreozko botua sartuko da ur-nan eta, jarraixan, interbentoriak emongo dabe botua eta, amaitzeko, presidentiak. Mahaixak eta interbentoriak botu-emotailien zerrendako orri gutzietan siñatu biharko dabe eta orduan hasiko da publikua dan boto-kontaketia. Edozein protesta edo erreklamaziño gertatzen dala be, mahaiko hiru kidien artian erabagiko dabe, gehienguari jarraituta. Eta sobriak, papeleta gutziekin, Epaitegixetara eramango dira.

Dokumentaziñua

Botua emoterakuan NAN, pasaportia edo gidatzeko karneta aurkeztuko da. Kadutatutako agirixarekin botua emon ahal izango da, beti be dokumentu horrek argazkixa badaka. Ezin da, esaterako, NAN-aren resguarduarekin botua emon, argazkixa ez dalako.

Iñaki Iriondo Eibarko kazetarixak 1989ko iraillian ekin zetsan Eusko Legebiltzarraren inguruko kronika politikua egittiari. Tartian izan badau be lan hori pixkat baztertuta, bai Egin-en eta bai Gara-n erredaktore-buru jardunda, gaur egun gertutik segitzen dau hamengo politikia.

“Saso bateko politikua hizlari hobiak ziran”

– Urte guzti horretan zelako aldaketia izan da Gasteizko parlamentarien jardunian?

Ni hasi nintzan sasoi politikua nagusixaguak ziran gehixenak. Gaur egunguak profesionalaguak dirala esango neuke: horretarako prestatutakuak, karrerako parlamentariuak ixa. Hizlarixak be, ordukuak hobiak ziran; gaurkuen artian, Egibar kenduta, arrarua da esan biharreku idatzitta ekartzen ez dabena. Emakumien kopuruan be badago aldaketia: oiñ erdixa baiño gehixago diralakuan nago.

– Esaldi batek diñuan modura, “merezi dittugun politikua dittugu”?

Egixa esateko, arlo horretako gero eta profesional gehixago dagoz: askotan alderdittik kanpo edo haren babesetik kanpo ixa biharrik egiñ ez dabena. Emoten dau arlo horretan gauzak aldatzela bidian dagozela, baiña sasoi batekuak bokaziño haundixagua zeken eta militantiak ziran.

– Biharra egitten dabe benetan? Piper egittera ez dagoz ohittuegi?

Danetarik dago; alderdi txixiketakuak, esaterako, bihar gehixegi eukitzen dabe. Eta ahalegintzen dira danetara heltzen, ez pentsa! Eztabaida gutzietan berba egin bihar badabe be. Talde haundixak lan erosuagua eukitzen dabe, espezializatutakuekin jarduteko aukeria. Baiña


orokorrian biharra egitten dabe, bai. Euren lana produktibua dan, hori eztabaidagarrixagua da. Hiru funziño dake parlamentariak: legiak egin, gobernua kontrolau eta bere akuillua izan. Eta daken kompetenzixak emoten dabena emoten dau: askotan iñora eruaten ez gaittuen eztabaida politikuetan galtzen dira, gero iñolako aplikaziñorik ez dakenetan. Kobratzen dabena be hor dago: soldatak alde batetik eta dietak bestetik. Azken horretan badira onartu ezin diranak.

– Kazetarixokin daken tratuan hurbillak dira? Ala batzuetan bakarrik?

Gure arteko tratuan badago halako gertutasun bat: danok erabiltzen dittugu pasillo berberak, espazio bera konpartitzen digu. Oin barruan ezin danez erre, gehixago urtetzen dabe kanpora eta kafetegixak bizitasuna galdu dau.

– Zer espero dozu hauteskunde honetatik? Aldaketak hoberako izango dira?

Aldaketak argi dago izango dirala. Hoberako? Hori gustuen arabera izango da, ezta? Nik pentsatzen dot baietz, oiñ arte ezker abertzalia parlamentutik kanpo egon dalako urte askuan: 2001ian, bertan izanda, modu kaskarrian egon zan. EAJ be haundixagua izango da oiñ eta PSE eta PP, bixen artian, gehixengua izatetik %25 izatera pasau leikez. Aldaketia noraiño eziñ esan.



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m bista eder
clínica dental hartz klinika

R.P.S. 149/12

Inplante eta Hartz-Estetikan adituak

Bista Eder Hartz Klinika

Bista Eder, 19 - behea

943 70 00 82 / 943 20 84 75

“Ezin ditzakegu gauzak aldatu beti berdina egiten badugu”

www. EstilGrafico.COM

1880411 - numero egokitu berrabiltzeko gaitu


- SCHMENA
- LANTALDEA
- WEB GUNEAK
- ENPRESAKO BIDEAK
- KATALOGOAK
- IRAGARRIAK
- BUKI KORPORATIBOA
- ERROTULAZIOA
- ARGAZKIAK
- PACKAGING-A

Kanpaina hasi da gurian



Arriolaren mitiña Untzagan

Hauteskunde kanpaina bete-betian sartu gara eta PSE-EE alderdixak hainbat ekitaldi antolatu ditu horren harira. Barixakuan Iñaki Arriola Eusko Legebiltzarrerako Gipuzkuako zerrendaburuak mitiña emon eban Untzaga plazan; eta astelehenian, barriz, Patxi López lehendakari eta Rafael Bengoa Osasun sailburua Eibarren izan ziran bisitan, Amañako pasealeku barrixan, bertan ospital barrixaren proiektua azaltzeko asmoz.




EH Bildu-ren mitiña bixar Untzagan

Laura Mintegi lehendakari eta Oskar Matute izango dira bixar eguerdixan Eibarren, 12.00xetan Untzagan emongo daben mitiñian. "Soluziñuak zure esku" esloganarekin auzetu da koaliziñua Eusko Legebiltzarrerako hauteskundiota.

Eva Juezen prentsaurrekua

EAJ alderdixak aurreko barixakuan salatu eban, "López hautagaixak Eibarren egiñ ei dittuen inbersiñuez Eibarko PSE-k diñuana hauteskundiari begira botatako guzur galanta eta eibartareri iruzurra dirala esan geinke. Hurrengo Eusko Jaurlaritzak bere gaiñ hartu biharko dittuen partidak hor sartu dittue (ospital barrirako 30 milioi eta pasiuaren kostuak), Teknikeri egindako mailleguak (10 milioi)... baiña gezurrik haundixena komunikabidietan honako mezua zabaltzian bota dabe: 'Lópezek agindutako hiruk (ospitala, pasia eta Tekniker) bete egin dira'. Izugarrizko guzur hori" argitzeko ordua dala esan eban EAJ-ko ordezkariak.



Eibartarrak zerrendetan

Gure herriko ordezkariak Gipuzkuako zerrendetan juango dira, logikuena danez. Sozialistak dira eibartareri gehixen erreparatu detsenak eta, holan, Iñaki Arriola izango da PSE-EEren buru; zerrenda berian juango dira Miren Gallastegi (4. postuan), Eneko Andueza (15.ian) eta Ana telleria (18.ian). Alderdi Popularreko 10. postuan aurkeztuko da Carmen Larrañaga, EAJ-PNVko listaren 15. tokixan juango da Eva Juez eta Euskal Herria Bilduren 21.ian Sergio San Jose. Lau haundixak kenduta, aukera gitxiago daken zerrendetan be izango dira eibartarrak: Ezker Anitzan, 8. tokixan doia Elixabete Gómez Laconcha; Ezker Batua - Berdeak-ekin Juan Sánchez-Vallejo (4.ian), Isabel Postigo (8.ian) eta Juan Manuel Gómez (13.ian); eta Equo-Berdeak zerrendetan dogu Mutrikun bizi dan Iñigo Agirre eibartarra.

denolan, s.l.
ENPRESA AHOLKULARITZA

Tf: 943 741800 / Fax: 943 741760
P. M. Urruzuno, 31 (ELGOIBAR)

Tf. (4 linea): 943 20 16 80
Fax: 943 20 18 41
denolan@denolan.es
Muzategi, 1 (EIBAR)

Siurlan
ASEGURU
ARTEKARITZA

Muzategi, 1 (EIBAR)

Tfnoa: 943 20 16 80 Faxa: 943 20 18 41

Larragest

INMOBILIARIA / ASEGURUAK

F. Calbetón, 22-24
Tf. 690 610 715

SAGARDO EGUNA


2012




ALORRENEA · ALTZUETA · BARKAIZTEGI · BEGIRISTAIN · EGI-LUZE · GARTZIATEGI · GAZTAÑAGA · GURUTZETA · ISASTEGI · OLAIZOLA · SARASOLA · ZAPIAIN · ZELAIA

Untzagak gañezka egün zuren

Giro ezinhobea zapatukoa. #SagardoEguna arrakastatsua izan zen; azkenengo orduan euri tanta batzuk ere izan ziren, baina ez zuen eraginik izan. ...eta kitto! Euskara Elkarteak bereziki eskertu nahi du izandako laguntasun guztia: Gorenak sagardotegiei, bazkideei, Guridi tabernari eta Ondo Nai, Botellin eta Barakaldo elkarte gastronomikoei. Untzagara bertaratu eta tiketa erosi zuten guztiei eskerrik asko, berdin Twitter eta Facebook bitartez parte hartu zutenei. Zozketa eginda, sare sozialak erabili zituztenen artean, 13 sagardo botilako saria irabazi du @VirginiaZuazo-k. Zorionak!








trikitia



juerga



dantza



urruntzia

argazkiak: **LEIRE ITURBE**
/ SILBIA HERNANDEZ


Sare sozialak erabili zituztenen artean, 13 sagardo botilako saria irabazi du @VirginiaZuazo-k.



jokoa



grosea



Matxismo egoerak Beldur Barik salatu

Berdinsareak hirugarrenez antolatu du Beldur Barik lehiaketa. Andrazkoek bizi dituzten diskriminazio eta bazterte egoerei buruz neska-mutilek egindako adierazpide artistikoak saritzea du helburu. Lehiaketaren antolatzaileek diotenez, "aurkeztutako lanek errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeriaren kontrako konpromiso sendoan oinarritutako jarrerak erakutsi beharko dituzte".

Lehiaketan adierazpide mota guztiak onartuko dituzte, baina beti ere bideo formatuan aurkeztuta: film laburrak, bideoklipak, lipdubak, dantzak, errezitatutako poemak edo kameraren aurrean irakurritako gogoetak, bideo proiektuak... izan daitezke, baina lehiaketara aurkeztu ahal izateko bideoka-



merarekin grabatu eta bideoan entregatu beharko dituzte lanak.

300 euroko saria Eibarko onenentzat

Lehiaketa bereziki gazteei zuzenduta antolatutakoa da eta Euskal Autonomia Erkidegoko 12 eta 26 urte arteko neska-mutilek har dezakete parte, banaka zein taldeka. Edozein kasutan, parte-hartzaileek gehienez hiru lan

aurkezteko aukera izango dute. Adinaren arabera, bestalde, kategoria bi bereiziko dituzte: 12-17 urte bitartekoena eta 18 urtetik 26 urtera bitartekoena.

Aurten lehiaketa berritasunekin dator eta, orain arteko sariei, herri bakoitzeko lan onenak saritzeko emango dituzten beste batzuk gehitu dizkiete. Eibarren, udaleko Berdintasun Arloak 300 euroko sari bi emango ditu, bat

kategoria bakoitzeko. Sari hauek eskuratzeko aukera izateko parte-hartzaileek Eibarko eroldan izena emanda egon beharko dira. Lehiaketara proiektuak aurkezteko epea urriaren 31n amaituko da. Informazio gehiago eskuratzeko www.beldurbarik.org webgunera jo daiteke (lehiaketan parte hartzeko bete beharreko baldintzak eta beste-lakoak bertan eskuragarri daude baita ere).



Surf ikastaroa egin dute La Sallekoek

La Salle Azitaingo DBH 4. ikasleak Zarautzen izan dira surf ikastaroa egiten. Esperientziaren helburua, "ongi pasatzeaz gain, ikastetxean egin ezin dituzten kirolak praktikatzea" dela azaldu digute irakasleek. Zarauzko ikastaroan oholaren mantenimendua nola egin eta zein jantzi eta olatu diren egokiak ikasteko aukera izan zuten. Horren guztiaren ostean, ikasleak uretara abiatu ziren eta, eguraldi bikaina lagun, ikasitakoa martxan ipintzeko ez zuten inolako aitzakiarik jarri.

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.


ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

FILOAULA
Ikasi ikasten!!

- Estudiatzeko Orientabide ikastaro berezia.[®] Ikaslearen baldintza eta helburuei, eta hezkuntza sistemaren eskakizunei, egokitutako ikaste teknikak.
- Filosofia klaseak.
- Irakurketa Ulerkorrerako tailerrak.

www.filoaula.com
San Juan, 3 - 1.
Tel. 658-710827

Maila guztiak: LH, DBH, Batxilergoa...



Ehari
Ulazia

Ateak ireki kirolari

Orain dela bi aste Eibarko erdigunea hartu zuen Eibarko Klub

Deportiboko ate irekien jardunaldiak. 88 urteko bizitza duen elkarte osatzen duten hamahiru komisioek urte guztian jorratzen dituzten kultura eta kirol ekintzez jantzi zituzten gure kaleak, eta herritarren esku laga zuten egunero egiten duten lana.

Erreferente garrantzitsua izan da beti Eibarko Klub Deportiboa: kultura eta aisialdia sustatzeaz gain, kirolari bultzada izugarria eman dio herrian. Hain zuzen ere, kirola hartu nahiko nuke hizpide, neurri handi batean egun gazteek kirolarekin duten harremana. Eibarko klub Deportiboak ateak ireki zituen aurrekoan eta, jendetza gerturatu bazen ere, ez zen gazte askorik joan antolatuta zegoen katramilara. Hau da Klub Deportiboak azken urteotan duen gabezia nabarmenetako bat: aurpegi gazteen ausentzia.

Kirola egiteko modua eta gazteek kirol-jarduerarekin duten konpromisoa aldatzen dihardu. Gero eta gehiago dira betiko elkarteetatik kanpo kirola egiten duten gazteak, baina ezin gara makurtu indibidualismo horren aurrean.

Kirol-kolektiboak eta horietatik eratorritako balioak merezi bezala baloratu behar dira; kidetasuna, laguntza, parte izatearen sentimendua, ardura banaketa...

Sasoi eta ohitura berrietara egokitutako eskaintza aberastuz, bizi-estilo aktiboak bereganatu behar ditugu berriro, lagunartean gozatuz eta ikasiz. Gazte, ireki ateak kirolari!

Brontzea Muguruza judokarentzat Pau-en

Kalamua judo taldeko ordezkariak bikain jardun zuen Pirinio Atlantikoko komiteak antolatutako Pau-ko XV. Nazioarteko torneoan. Kadete mailako judoka nagusi izan zen 63 kilotik beherakoen artean lehenengo fasean jokatu-tako ligan eta, borroka bakarra galduta, brontzekoa beregarantu zuen azkenik. Manu Agirrek epaile jardun zuen.

Kalamua klubaren instalazioetan, bestalde, eskola kirolaren lehenengo jardunaldia antolatu zen eta 35 neska-mutil izan ziren parte hartzen alebin mailan.



Sari handiak Asola-Berriko hiru-txirilo txapelketan

Zapatuan, arratsaldeko 17.00etan hasita, Asola-Berriko sari nagusia jokatu da, hiru-txirilo elkartearen 50. urteurren honetako ekitaldi nagusienetako bat. Sariak ere ez dira nolana hikoak izango: irabazleak 500 euro, txapela eta trofeoa eramango ditu etxera; bigarrenak 400 euro irabaziko ditu, 3.ak 300, 4.ak 200, 5.ak 100 eta 6.ak Mujika harategiko sei txuleta. Sariak izango dira ere emakumezko, beterano, jubenil eta infantil onenentzako sariak ere egongo dira. Tiraldia bost eurotan izango da.

Bihar Eibar Rugby Taldea -San Cugat Unben

Aurreko egunean aurkeztu zituen bere taldeak Eibar Rugby Taldeak eta bihar hasiko dute denboraldia talde nagusikoak estatuko zilarrezko mailan. San Cugat izango da Unbe bisitatuko duena eta Ander Romarate igerilaria omenduko dute partidu hasieran. Bigarren taldeak Euskal Ligan jardungo du, kadeteen moduan, eta alebinak Gipuzkoa mailan. Nesken taldeak, bestalde, Amaia Telleria dute entrenatzaile berria eta Ligako bi jardunaldi jokatu dituzte. Gaztetxoendako, Errugbi Eskolan parte hartu nahi duenak ateak zabalik ditu.



10.000 LONDRESEN

Kopuru horren bueltan ibili zen azken Joko Olinpikoetan Londresen parte hartu zuten atleten kopurua, eurretatik erdiek desfilatu bazuten ere hasiera ekitaldian. Kontinenteei erreparatu, 5.256 europar izan ziren, 2.318 amerikarrak, 1.740 asiarrak, 958 afrikarrak eta 694 Ozeaniakoak. Oraingoan ere gizonezko gehiago izan ziren emakumezkoak baino: 6.106 eta 4.860, horrek erakusten duen aldearen murrizketarekin. Ordezkaritza handiena, anfitrioi izanda, Erresuma Batukoa izan zen, 566 atletekin (289 gizonezko eta 277 emakume). Estatu Batuena izan zen bigarrena, 542 atletekin (hor emakumezkoak izan ziren nagusi: 277/265). Atzetik izan ziren Errusia (445), Australia (416), Alemania (397), Txina (389), Frantzia (340), Japonia (303), Italia (285) eta Espainia eta Kanada (281). Dominen banaketa historikoari dagokionez, EEBB dira nagusi (929) eta atzetik doaz Alemania (400), Errusia (395), Erresuma Batua (207), Frantzia (191) eta Italia (190).

apuntia

Irabazteko partidu bi Eibarrentzat Ipuruan

Sintoma ona izango zen Eibar KEk Ipuruan izango dituen hurrengo partiduak irabaztea; batez ere bigarrena, horrek Kopako hurrengo kanporaketan Europan jokatzeko diharduen lehen mailako talde indartsua ekarriko bailioke opari moduan aurkarizat. Horretarako, baina, Arroyo Extremadurako taldea kanporatu beharko du Ipuruan datorren eguaztenean, 20.00etan hasiko den partiduan. Aurretik, etzi (zapatuan) Teruel hartuko du ligako jardunaldian eta, irabazita, aukera handia dute Garitanoren mutilek sailkapeneko gorenean kokatzeko.



Urbat-Urkotronikaren proiektu berria

Aurreko barixakuan aurkeztu zuen Urbat-Urkotronik-ek denboraldi berriari begira presentatutako proiektua, hainbat berrikuntzekin. Orain arte igeriketan eta waterpoloan klubak egin duen lanarekin jarraituko badu ere, hementik aurrera sorospena, jauziak eta sin-

kronizatua ere eskainiko dizkie euren bazkideei. Igeriketarekin lotutako diziiplina berri horiekin "atleta polibalenteagoak" sortzeko asmoa erakutsi zuten klubeko arduradunek Urkotronik enpresaren lokaletan egindako aurkezpenen.

Pilota partiduak Kiroldegian

Zapatuan jokatuko dira, 11.00etan, hirurak ere Kluben Arteko torneoari dagozkionak. Klub Deportiboko ordezkariak honakoak izango dira: Ibarluzea, lau eta erdiaren barruan, Arrasateko ordezkariaren aurka; Iriondok Bergarako ordezkaria izango du aurkari; eta Arrillaga-Urionabarrenetxea bikoteak Bergarakoa.



Jose Luis Gisasola Gipuzkoako onena ehiza txikian

Aurreko domekan Zambranko Santa Cruz del Fierroko lurretan jokatutako ehiza txiki-ko Gipuzkoako txapelketan, Diana ehiza eta arrantza el-

karteko Jose Luis Gisasola izan zen onena beteranoen mailan eta, emaitza horrekin, Euskadiko txapelketan hartuko du parte.

berriak

RUIBALEN GARAIPENA


Ruibal saskibaloitako taldeak kostata irabazi zion Aloña Mendiri (86-81). Eibartarrek hobeto kudeatu zuten azken txanpa hemezortzi puntuko aldeari ihes egiten laga ondoren. Mikel Arnaiz (21) eta Aitor Azurmendi (20) izan ziren saskiratzaile onenak.

FOBALL ZALETUA

Durango da orain arte jokatutako partidu guztiak irabazi duen taldea eta bakarrik geratu da sailkapeneko lidergoan. Azken jardunaldian 4-1 irabazi zion Tankemans taldeari. Krabelin hoteleko zozketan, bestalde, Azkena Kalton izan da saritua hilabete honetan. Eta, zubia dela eta, asteburuan ez da Kiroljokoa liga honetako partidurik jokatuko.

Gimnasten denboraldi hasiera

Aurten talde berria osatu du Ipurua gimnasia erritmikoko taldeak federatu mailan: alebin oinarri taldea, hain zuzen, 11 urteko bost neskek osatutakoa. Asteburuan, euren estreinaldian, 4. postua lortu zuten Izar Leku txapelketan. Postu bera eskuratu zuten lehen mailakoek aipatutako torneoan, lehenbiziko jardunetan hainbat akats eginda.



Somos Eibar Eskubaloia lider

Goizegi da epe luzeko ondorioak ateratzeko, baina estatuko 1. mailako liga-buru dugu Eibar Eskubaloia lehenengo taldea: hori bigarren jardunaldian eibartarrak ez zirela berdinketatik haratago joan. Azken jardunaldian, atsedenaldira 12-11 irabazten joan eta gero, eibartarrak 26-20 nagusitu zitzaizkien Urdanetari; defentsa izan zen, berriro ere, emaitzaren ardatzetako bat (gol gutxi jaso duen taldea da). Tekniker Eibar Eskubaloiko jubenil eta kadete mailetako taldeek, bestalde, galdu egin zuten, bietan ere, Zumaiako Pulporekin.



Mikel Arrillaga

Txiste bat

Joan zen astean txiste bat kontatu zidaten

eta zurekin konpartitu nahi dut, irakurle. Testuingurua hauxe da: lantoki publiko batean egiten duzu lan eta jakin duzu murrizketak egingo dituztela. Ezaguna egiten zaizu, ezta? Badakizu murrizketak zer diren: lan baldintzak eskastu, ordu gehiago lanean, kaleratzeak...

Baina kontu dezagun txistea zeuri gertatu izan balitzazu bezala. Zure lankideekin batera murrizketa horien kontra protestatzea erabaki duzu eta lantegiaren aurrean jarri zara pankartaren atzean. Pankartak "zerbitzu publiko duinen alde" dio. Ari zarete protestaka zeuen oihu, zeuen txilibitu, eta hara non agertzen den nagusi ustekoa! Une batez gelditu eta, leloa irakurtzeko astia hartu ondoren, zera dio: - *Zerbitzu publiko duinak nahi dituzue? Komunak beheko solairuan daude!!!*

Eragin al dizu barregarrik txistek? Niri bat ere ez. Agian espainieraz grazia handiagoa izango du, ze euskaraz behintzat... Edo akaso ez duzu harrapatu: "Servicios públicos, baños". Orain bai? Eta barrerik egin gabe jarraitzen duzu. Nik ere bai. Pentsa dezakezu txiste hau askok laga nahi dugun Espainiarik txabakanoeneko ordezkariaren batek kontatu zuela, Valentzian edo... Oker zaude. Eibarko alderdi sozialistaren zinegotzi batek egindako komentarioa da Udaleko langileak protestan ari zirenean. Benetako sozialistek burua altxatuko balute...

○ Euskaltzaindiaren hiztegi berria

Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak hiztegiaren lehen bertsioa aurkeztu zuten hilaren 3an Bilbon: lehen 20.000 hitzak, beren definizio, kategoria gramatikal, espezialitate, erregistro eta euskalki markekin. Hiztegi Batua oinarri hartuta, hitzen adierak eta erabilerak adibideak jaso dituzte. "behingoz normaren arabera". Eguneroko laneko tresnatzat jo duten publiko zabalari zuzendutako proiektuak 1.2 bertsioa izango du hiruzpalau urteren buruan, ordu-rako 36.000 sarrera eta azpisarrerekin. Hiztegia 45 eurotan jarri dute salgai; oraingoz ez dute sarean jarriko.

○ Euskara nagusi Foru Aldundian

Gipuzkoako Foru Aldundiak euskara hizkuntza nagusi izatea erabaki du barmuan zein kanpoan: horretarako, aurreko legealdetik indarrean dagoen euskara sustatzeko foru araua abian jarri dute. Agerraldietan izango da aldaketa handiena eta prentsaurrekoetan euskara izango da nagusi: horrez gain, zerbitzuetako buruek eta idazkari teknikoek euskaraz jakin beharko dute. Eta diputazioaren lehiaketetan parte hartzeko baldintzetan hizkuntz irizpideak sartu dituzte. Euskara lehenesteko neurri horiek ikertzen ari da Madrilgo gobernuak, legez kontrakoak direlakoan.

euskararen txokoa

San Andres bertso-paper lehiaketa

Urtero legez San Andres bertso-paper lehiaketa

antolatatu du ...eta kitto! Euskara Elkartek. Adinaren arabera maila bi bereziko dira: 16 urtera artekoek (Eibarko ikasleek) bertso bat edo 2 kopia aurkeztu beharko dituzte eta 16 urtetik gorakoek, berriz (Euskal Herri mailan), 4 puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez (10 bertso gehienez). Gaia eta doinua libreak dira eta bertsoek jatorrizkoak izan beharko dute. Lehiaketarako bertsoak azaroaren 5a baino lehen ...eta kitto! Euskara El-



kartean (Urkizu, 11 solairuarterean) entregatu behako dira (3 kopia, gaitzenarekin sinatuta eta beste orri batean, gutunazal itxian, gaitzizena identifikatzeko datuak). Umeen mailako irabazleak liburua eta txapela jasoko ditu eta bigarrenak liburua eta plaka. Helduen mailako lehenak 300 euro eta txapela eskuratuko ditu eta bigarrenak, berriz, 250 euro eta plaka. Irabazleek azaroaren 25ean Portalean egingo den San Andres bertso-jaialdian jasoko dituzte sariak.

Javier Iriondoren liburuaren aurkezpena



Defibel, Lacasium, Mujeres al Cuadrado eta Pagatxa emakumeen elkarteak antolatuta, urriaren 19an Javier Iriondo idazle bizkaitarraren "Donde tus sueños te lleven" liburuaren aurkezpena hartuko du Portaleak, 18.30etan hasita. Liburuak arazo guztien gainetik aurrera egiteko kemenaz dihardu eta protagonista nagusia Himalayan mendi istripuan laguna galdu duen eskalatzaila da. Etxera bueltan, istripua eta bere ondorioak ezin gaitzizena ibiliko da, Joshua izeneko maisu misterio-tsuairekin topo egiten duenera arte.

Arriagaren ikasleak Topalekuan

Bihar barixakuan hasi eta martitzenera arte, Topalekuak Maite Arriagaren tailerretako ikasleen erakusketa hartuko du, ordutegi berezian: barixakuan 19.00etatik 21.00etara, zapatuan 11.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara, domekan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara eta astelehen eta martitzenean, berriz, 19.00etatik 21.00etara.



Sanandresetarako kartel bila

Euskara eta Kultura Batzordeak 2012ko San Andres jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Gaia zein koloreak aukeratzeko kartelaren egilearen aukerakoak izango dira, baina kartelak "Sanandresak 2012 Eibarren" esaldia idatzita izan beharko du. Lanak euskarri gogor baten gainean aurkeztu beharko dira edo, bestela, formatu digitalizatuan (jpg formatuan eta 300 ppp-ko bereizmenarekin, 70x50 zentime-




troko proportzioa zainduta). Lehiaketarako lanak urriaren 19ko 14.30ak baino lehen Pegoran (udaletxeko beheko solairuan) laga beharko dira eta epai-mahaiak urriaren 26an emango du ezagutzera 600 euroko saria nork

jasoko duen. Umeentzat, bestalde, maila bi bereziko dituzte adinaren arabera: 10 urtera artekoena eta 11-14 urte bitartekoena. Maila bakoitzeko sari berezi bana (dirurik ez) ematea aurreikusten dute antolatzaileek.

Halloween-erako girotzen

Eibarko El Corte Inglés-ak Halloween jaiarekin lotutako hainbat jarduera antolatu ditu urrirako. Etzi (zapatua) "Maskara beldurgarriak, marraztu eta pintatu" izeneko tailerra egingo da. Urriaren 20an, berriz, "Eskeleto Mugikorra, marraztu eta pintatu" izeneko tailerraren txanda izango da eta hilaren 31n (eguaztana) Halloween koko-jantzi lehiaketa eta desfilea egingo dituzte. Jarduerak 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzat pentsatuta daude eta 17.30etan hasiko dira, merkataritza zentroko aretoan. Parte hartzeko beheko solairuko liburudendara jo daiteke eta bertan izena eman. Lehiaketa eta desfilerako izena emateko azken eguna urriaren 26a (barixakua) izango da.



Enpanada onenak sarituta

Zapatuan ospatu zen Urkizun As Burgas Galiziako Etxekoek antolatutako III. Enpanadaren jaiak. Goizean Galiziako produktuen salmentarako taberna zabaldu zuten eta enpanada lehiaketaren hirugarren edizioa jokatu zen: lehenengo saria (150 euro eta garaikurra) Matilde Marin-ek eraman zuen, biga-

rrena (90 euro eta garaikurra) Antonio San Martin-ek eta hirugarrena ere (60 euro eta garaikurra) Matilde Marin-entzat izan zen (partehartzaile bakoitzak enpanada bi aurkezteko aukera zuen-eta). Argazkian irabazleak ageri dira, Albino Vieites Galiziako Etxeko presidentearekin, Miguel de los Toyos Eibarko alkatearekin eta epaimahaiko zein Galiziako Etxeko zuzendaritzako ordezkariekin batera. Musika, berriz, Os Galaicos taldekoek ipini zuten eta arratsaldean umeendako hainbat eskulan tailer antolatu zituzten.




Ustekabe-k agur udari

Ustekabe fanfarrekoak Zorrozan (Bilbon) egon ziren aurreko zapatuan, Turutarra fanfarrearen XXX. urtemugan parte hartzen. Fanfarre bien arteko harremana orain dela 8 urte hasi zen eta Turutarrako lagunak Eibarren bisitan izan ditugu beste batzuetan, besteak beste Ustekabek 5 urte bete zituenean. Bestalde, eta bitxikeria modura, Irungo tabernari batek "Ustekabe" izeneko pintxo sortu berri du, lehenengoz antolatutako lehiaketan parte hartzeko: Zura taberna-jatetxeko Alberto Liébanak asmatu du Ustekabe izeneko pintxo, jaten duenari sorpresa edo "ustekabea" emateko asmoz. Izan ere, pintxoaren osagaietako bat jaten hastean, ustekabean aurkitzen du jaten duenak.

laburrak

UDAZKENEKO TXANGOIA

Arrate Kultur Elkarteak Oiasoko Erromatar Museoara txangoa antolatu du. Urriaren 27an izango da (autobusa 09.30etan Ego-Gaienetik) eta 27 euro balio du bazkideentzat (bidaia, museorako sarrera eta bazkaria) eta 30 euro beste guztiarentzat. Izena emateko elkarte bulegora joan daiteke martitzen eta eguenetan, 17.00etatik 20.00etara, telefonoz deitu (943202299) edo e-maila idatzi (arratekultu@gmail.com).



LIBURU AZOKA

Urriaren 19tik 28ra egitekoa zen Eibarko Liburu eta Diska Azoka bertan behera laga behar izan dute antolatzaileek, "muntaiarekin arazoak daudelako".

Nutrigenomika: "A la carta"-ko dietak

Gure gurasoengandik heredatutako karga genetiko jakin batekin jaiotzen gara denok. Orain dela gutxi arte, gure bizitzan zehar geneak aldaezinak zirela sinistu edo pentsatu arren, orain badaigu geneak aktibatu edo desaktibatu daitezkeela ingurumenaren arabera (elikadura, loaldia, klima, agente kimikoei esposizioa, estresa...). Elikadurak eta elikagaiek ekspresio genikoan dituzten eraginak aztertzen dituen zientziari **Nutrigenomika** deritzogu; hau da, pertsona baten osasunean bizimoduak eta elikagaiek gene jakin batzuk aktibatze edo desaktibatze duten gaitasuna. Laguntza galanta izango da gaixotasun kronikoen prebentzioan.

Adibidez, nire analisi genetikoak esaten badit tentsio altua izateko joera daukadala, zer nolako aldaketak egin behar ditut nire bizimoduan hipertentsioa eta horrekin lotuta dauden ondorio larriak etorkizunean ez izateko? Edo, nire analisi genetikoak esaten badit gehiegizko pisuaren joera daukadala, zer elikatze eredu jarraitu beharko ditut ez gizentzeko? Edota, honetan eta beste horretan, elikagaiek lagunduko didate kaltegarria den beste elikagai baten efektua konpentsatzeko?

Elikadura "a la carta" izateko aukera izango dugu inoiz? Genetika frogak elikatze eta ariketa fisikoaren gizabanako aholku bihur daitezke etorkizun hurbilean. Baina, bitartean, bizimodu osasuntsua izateko, ohitura onen bidez aldatu dezakegu positiboki gure genoma.



Silvia Zuluaga
(CENTRO MÉDICO ÉIBAR
OSASUNDEGIako nutrizionista)

NOIZ DA BAT HIPERTENTSOA. SENDATU DAITEKE




Odoleko presio altua denbora luzez mantentzean sortzen da hipertentsioa. Presio arteriala bi zenbakirekin adierazten da, 125/70 adibidez. Lehenengo zenbakiari sistoleko presioa edo maximoa deritzo (bihotza uzkurto egiten da odoloa gorputzera zabaltzeko); bigarren zenbakiari, berriz, diastoleko presioa edo minimoa deritzo (bihotz-taupaden arteko presioa; kasu horretan, bihotza erlaxatuta dago). Sistole-presioa 140 edo altuagoa bada, edo diastolekoa 90 edo altuagoa, orduan hipertentsioa da. Hipertentsioa oraindik ez da sendatzen. Baina medikamentuekin eta dietan eta bizitzeko eran aldaketak eginez, kontrolatu daiteke (bere balioak 140/90 mm Hg-tik behera eutsiz).



ZER EGIN DAITEKE BEHERAKO LARRIAREN AURREAN



Kasu horretan, normalean baino gehiagotan obratzen da (hiru bider edo gehiago egunean) eta egingandakoa bigunagoa da. Ondo ez dauden janariak edo edariak hartzeagatik gertatzen da. Medikamentu-mota batzuek ere (antibiotikoei) edo egoera emozionalek (urduritasunak) sortaraz dezakete. Beherako larriak deshidratazioa erakar dezake, batez ere ume eta zaharren artean. Horrelakoetan, arroz-ura, azenario-ura edo etxeko gazura (litro bat uretan 4 koilarakada azukre, gatz eta bikarbonatu koilaratxo erdi bana eta 2-3 limoiren zukua) hartu daitezke. Botaka eginez gero, egon ordu betean ezer hartu gabe; gero, 10 minutuero, hasi zurrutad



da laburrak egiten. Likidoak onartuz gero, hasi apurka-apurka jaten; ez egon barrurik 12-24 ordu baino gehiago. Ez edan esnerik eta saihestu gozokiak, kafea eta gasdun edariak.

ZELAN AURRE EGIN ROSACEA-RI



Rosacea aurpegiko azalari eragiten dion asaldura da. Sarritan sudur, masail, bekoki eta kokotseko gorrirasunarekin hazten da. Geroago masailean eta sudurrean pikorrak eta zain txiki gorriak ager daitezke. Nahiz eta sendatu, erregularra izanez gero eta egoera okertzen duten faktoreak ekidinez gero, tratamenduari ondo erantzuten dio. Zenbaitetan tratamenduari denboraldi luze batean eutsi behar zaio. Sintomak hobetutakoan ere eusteko tratamendua beharrezkoa izaten da; sarritan errepikatzen denez, tratamendu ziklo berriak beharko dira. Tratamendu kosmetikoan, ur epela erabili behar da beti eta alkohola eta parfumeak ekidin behar dira.




laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kittolko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egin beharko da ...eta kittol-n.




Zorionak, NAZRAWIT, astelehenian bederatzita urte egingo dozuz-eta. Muxu potolua aitta, ama, Irati, amama Olguita, abuela Carmen eta danon partez.



Zorionak, KARINA, gaur urtiak betetzen dozuzelako. Iaztan haundi bat famelixa eta lagunen partez.



Zorionak, DANEL, gure kirolarixak gaur 9 urte egiten dituu-eta. Patxo potoluak famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JULENTXO, astelehenian hiru urte egingo dozuz-eta. Patxo pillua gure txapeldunarendako.




Zorionak, URKO, Bercianos Eraso, etzi bi urte egingo dozuz-eta. Aitxitxa, amama eta izeba Mireiaren partez.




Zorionak, JAKES, martitzenian lau urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, IBANE, domekan 10 urte egingo dozuzelako. Famelixaren partez.




Zorionak, aitxitxa ANTONIO (hillaren 12xan) eta PERU (16xan), urtiak egingo dozuezet-eta. Maitte zaittuegu. Milla patxo potolo bixori.



Zorionak, JAIONE eta MARA, hillaren 14an eta 18xan urtiak betetzen dozuezet-eta! Patxo haundi bana, famelixaren partez.



Zorionak, IZARO, atzo lau urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, UNAX, hillaren 16xan bost urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

12an: 22.30


13an: 17.00, 19.45, 22.30

14an: 17.00, 20.00

15ean: 20.30

"El legado de Bourne"

Zuzendaria: Tony Gilroy



(2 ARETOAN)

12an: 22.30


13an: 17.00, 19.45, 22.30

14an: 17.00, 20.00

15ean: 20.30

"Bypass"

Zuzendaria: Aitor Mazo



(ANTZOKIAN)

12an: 22.30


13an: 19.45, 22.30

14an: 20.00

15ean: 20.30

"Venganza: conexión..."

Zuzendaria: Olivier Megaton




(ANTZOKIAN)

13an: 17.00

14an: 17.00

"Don Gato y su pandilla"

Zuzendaria: Alberto Mar



BARIXAKUA 12

GAZTELEKUA

16.30. Karta ikastaroa. Indianokua gaztelekuan.

ZAPATUA 13

GAZTELEKUA

17.00. Karta ikastaroa. Indianokua gaztelekuan.

TAILERRA

17.30. Haurrentzako tailerra: "Maskara beldurgarriak, marraztu eta pintatu". El Corte Inglés-ean.

hildakoak

- Esteban Ziarzolo Alberdi. 78 urte. 2012-X-6.
- Clara Barinagarrementeria Gandiaga. 90 urte. 2012-X-8.
- Jose M^o Armendariz Janariz. 81 urte. 2012-X-8.

jaiotakoak

- Nicole Gomes de Freitas. 2012-IX-24.
- Noah Lanchas Unanue. 2012-IX-26.
- Jace Varela Castro. 2012-IX-27.
- Ane Bustindui Pagoaga. 2012-IX-28.
- Izadi Flores Azpitarte. 2012-X-2.
- Itxaso Marcos González. 2012-X-2.

DOMEKA 14

GAZTELEKUA

17.00. Karta txapelketa. Indianokua gaztelekuan.

PILOTA

17.00. Arretxe vs Mendizabal III.a. Xala-Barriola vs Irujo-Laskurain. Olazabal-Arri vs Ongay-Larrinaga.

ASTELEHENA 15

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo". Beheko Tokian.

EGUAZTENA 17

IKASTEN

11.00.- Kafe-tertulia. Ikasturtearen aurkezpena eta tertulietarako gaiak aukeratzea. Klub Deportiboan.

POBREZIA ZERO

12.00. Pobreziaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira Eibarko Elkarkidetzarako Mahaiak antolatutako ekitaldi nagusia. Untzagan.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantuz-ekoen entsegua. San Andres elizako lokaletan.

EGUENA 18

ODOL-EMAILEAK

18.30.- Odol-emaileentzat odola ateratzea. Odol-emaileen elkartean (Pagaegi, 5 behean).

POBREZIA ZERO

19.00. Zine foruma: "Interferencias" (Zuz: Pablo A. Zareceansky). Portalean.

GURE BALIOAK

19.00. Gure Balioak Saria 2012 emateko ekitaldia. Ignazio Bereziartua Musika Eskolan (Elgoibarren).

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantuz-ekoen entsegua. San Andres elizako lokaletan.

AFARI OSASUNGARRIA

20.30. Afari Osasungarria ekimeneko saioa, Itxesi belardendaren eskutik (sukaldata nahi duenarentzat 18.30etan hasiko da). Portalean (sukaldean).

lehiaketak

✓ Sanandresak 2012 Kartel Lehiaketa

Lanak aurkeztea eta informazioa: **Urriaren 19ra arte**, Pegoran.

✓ Beldur Barik Lehiaketa

Lanak aurkeztea eta informazioa: **Urriaren 31ra arte**, www.beldurbarik.org.

✓ San Andres Bertso Paper Lehiaketa

Lanak aurkeztea eta informazioa: **Azaroaren 5era arte**, ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 solairuarteran).

HOROSKOPOA

ARIES

Inoiz ez duzu bere adiskidetasuna zalantzan jarri, baina huts egingo dizu. Zabaldu begiak, berak ez du ahazten-eta.

TAURUS

Datorren astean sortuko zaizkizun arazoak erraz konponduko dituzu. Duzun pazientziarekin, zurekin ezin da.

GEMINI

Etxean denak zure esanetara daude. Ez al zara diktadore bat izango? `Estatu kolpea´ ematekotan dituzu guztiak.

CANCER

Kontuz jaten duzunarekin, sabela lar sentikorra nabarituko duzu bestela. Garbiketa behar du barrualde horrek!

LEO

Asko kostatzen zaizu besteekin gauzak adostea. Beti inguruken aurka, jendea nekatzeraino. Besteen iritziak onartu.

VIRGO

Ilusio handia zeneukan kontu horrekin, baina ez zaizu ondo irten. Bizitza luzea duzu: beteko dituzu beste amets batzuk.

LIBRA

Barrez lehertuko zara batek kontatuko dizun txiste batekin. Txarrena da zuk kontatzean grazia guztia galtzen duela.

SCORPIUS

Zure buruan hego-haizea beti. Egiten dituzunak zur eta lur lagatzen ditu zure lagunak. Inori minik egin gabe, zu lasai.

SAGITTARIUS

Ametsak amets? Batzuetan bete ere egiten dira. Zureak gauzatzea zure esku dago. Orain duzu aukera paregabea.

CAPRICORNIUS

Odola, biolentzia eta horrelakoen zaletu amorratua zara... beti pantaila atzean! Desberdindu zinea eta egunerokoa.

AQUARIUS

Zer gertatzen zaizu? Zeozer kontatzera zoaz eta ahaztu egiten zaizu, zerbait galdetzera eta ez duzu oroiten. Cupido?

PISCIS

Beti biktimarena egiten! Oso eroso da beste erruak bota eta kaltetua zu zarena esatea. Heltzeko sasoia duzu.

Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena

erakusketak

✓ Urriaren 14ra arte



JUAN ANTONIO PALACIOS.
Argazki erakusketa.
Portalean.

✓ Urriaren 31ra arte

LOS RAMOS. "Buenos Aires Maitia"
argazki erakusketa.
El Ambigú kafetegian.

JOSE LUIS IRIGOIEN. "India"
argazki erakusketa.
Portalea tabernan.

JESUS BOTARO. "Camboya"
argazki erakusketa.
Klub Deportiboan.



farmaziak

✓ eguena 11

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✓ barixakua 12

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

✓ zapatua 13

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

✓ domeka 14

EGUNEZ **Azkué** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

✓ astelehena 15

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

✓ martitzena 16

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

✓ eguaztena 17

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✓ eguena 18

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✓ barixakua 19

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00. **EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro. **EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Egunerok: 15.00. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

		9			6
8	9			3	
7		5		2	
		7		1	4
	2			6	
1	8	2			
	6		2		8
	1			4	9
3			8		

SUDOKUA

1	3	8	6	7	5	2	4	9
6	2	4	3	1	8	9	7	
8	7	8	9	4	2	3	6	1
2	4	8	8	9	3	1	7	6
3	0	1	4	6	7	5	2	9
9	6	7	2	5	1	8	3	4
7	0	3	6	8	6	4	1	2
4	5	8	1	9	7	8	3	
8	1	3	7	3	4	8	6	

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua alokatuko nuke Ermuan edo Eibarren. Tel. 698-433561.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Urgentea. Tel. 603-484877.
- Pisua salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). 2 logela, egongela, sukaldalea eta komuna. Igogailua. 149.000 euro. Tel. 672-622774.

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Wenzeslao Orbean. 2 logela, egongela, sukaldalea eta komuna. Dena kanpora begira. Merke. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 622-049086.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Txomon. Autoa garbitzeko aukera eta komuna. 135 euro hilero. Tel. 670-931564.
- Garaje itxia alokagai Arrate-Biden. Garbitokiarekin. 90 euro. Tel. 679-310083.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Gizonezkoa eskaintzen da taberna garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 645-555265.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 645-557141.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta dendari jarduteko. Tel. 688-691544.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile moduan eta etxeak garbitzeko. Tel. 619-507664.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta mekaniko jarduteko. Gidatzeko baimena. Tel. 603-066671.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Gizonezko euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 638-241910.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko-lanak egiteko. Orduka. Tel. 659-080186.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko-lanak egiteko. Orduka. Tel. 602-110441.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita ospitalean ere. Tel. 618-354218.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita ospitalean ere. Tel. 629-994385.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 659-101631.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 638-233739.
- Emakumea eskaintzen da orduka asteburuetan nagusiak edo haurrak zaintzeko. Tel. 689-436454.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 605-129530.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 695-303237.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 685-552352.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 650-152866.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko-lanetarako. Tel. 638-884104.
- Laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaintzeko egunez, gauz edo orduka. 28 urteko esperientzia. Tel. 660-511781. Elena.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserrian jarduteko. Esperientzia. Tel. 652-248893.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 662-252150.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko-lanak egiteko. Tel. 632-253170.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko-lanak egiteko. Tel. 636-362251.
- Neska eskaintzen da garbiketarako eta etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-155950.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 608-180132.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta soziedadetarako garbitzeko. Tel. 674-259376.
- Gizonezkoa eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 647-898016.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 637-363778.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 645-366850.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 662-012834.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 679-912841.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 627-784812.
- Neska euskalduna eskaintzen da ileapindegi batean lan egiteko. 11 urteko esperientzia. Tel. 610-096417.

4.2. Langile bila

- Neska behar da Eibarko erdialdeko kafetegi batean. Curriculum-a bidali: tre@euskalnet.net
- Interna/o behar da etxeko lanak egin eta nagusia zaintzeko (baita asteburuetan ere). Derrigorrezkoa agiri guztiak izatea. Soldata: 1.000 euro. Tel. 626-933850.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ingeles 0 maila duen pertsonak irakaslea behar du. Tel. 676-483118.

5.2. Eskaintzak

- Kontabilitate eta Matematika klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Euskaraz eta gaztelaniaz. Tel. 943-127365.
- LH, DBH eta Batxilergo klase partikularrak ematen dira (Matematikak, Ingelesa, Euskera, Ekonomia). Talde murriztuak. Tel. 685-739709.
- Ingeles irakaslea eskaintzen da goizez ingeles klaseak emateko. Tel. 628-061783.
- Magisteritzako irakaslea eskaintzen da klase partikularrak emateko eta umeak zaintzeko. Tel. 638-855268.
- Irakaslea eskaintzen da errefortzu klaseak eta ikasteko teknikak emateko. Esperientzia. Tel. 696-036560.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Vending makinak salgai: snack-eko bi eta janari beroko eta palomiten bana. la berriak. Tel. 619-547188.
- 40 eta 30 diametroko hodiak salgai. Oso merke. Tel. 943-120308.
- MP4 eta Panasonic haririk gabeko telefonoa salgai. Berriak. 25 euro biak. Tel. 943-120030.

6.2. Eman

- Batxilergoko 1. eta 2. mailako liburuak oparitzen ditut. Tel. 672-428273.

Soluzioak zure esku



Urriak 12

12:00etan EIBARREN Untzaga plazan

EKITALDI POLITIKOA

Laura Mintegi eta Oskar Matute

BOZKATU

ehbildu

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

CAPI

LASER DEPILAZIOA

30 euro ZONA

- Aurpegia
- Izterrondoak
- Besapeak
- Bularra
- Sabelaldea
- Bizkarra
- Gerrialdea
- Sorbaldak
- Gluteoak


**Hanka osoak
+
Izterrondoak**

90€

30€

- Ezpaina.....10€
- Begitarte.....10€
- Alba lerroa.....15€
- Hanka erdiak.....60€
- Besoak60€

Gorputz tratamenduak




LEHEN

ORAIN

LEHEN


ORAIN



lehen

orain

BESOAK



lehen

orain

ESTRIAK

TEKNIKAK:

- Kabitazioa
- Radiofrekuentzia
- Laser lipolitikoa


5 saioko BONOAK

- Zona bat 35 euro saioa
- 2 zona 50 euro saioa
- 3 zona 65 euro saioa

Masajeak

- OSTEOPATIA
- KIROMASAJEA
- MASAJE TERAPEUTIKOAK
- REFLEXOLOGIA

Aurpegi tratamenduak



- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrekuentzia (zimurrak)
- **MANTXAK (berria)**




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKi

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK

EIBARKO PLAZIA

produktu fresko eta kalitatezkoak

Astero eskaintza

harrigarriak!

ERANTZUN BERRA